

# AURREZTEKO BESTE MODU BAT POSIBLEA DA

Gaurko gizarte honetan banka etikoa, aurrezki erantzulea, kode etikoa, elkartasun ekonomia, kontsumo erantzulea... gaurkotasuna hartzen ari diren hitzak dira, eta leku askotan eskeintzen da aurrezteko eta aldi berean lagun urkoari laguntzeko aukera. Honekin batera esan beharra dago gero eta jende gehiagoren ustetan bere portaera eragin bat daukala bai gizakian bai naturan. Laburbilduz esan dezakegu elkartasunaren ideia modan dagoela.

Gero eta gehiago gara dirua inbertitzen dugunean irizpide sozial, ingurugiro irizpide, edota irizpide etiko bat kontutan hartu nahi dugunok eta diruaren erabilpenari buruzko hausnarketa egiterakoan kontsumoaren atariari begiratu ezezik inbertitzeko erari begiratu behar dugula ere konturatu gara.

*¿Encontramos en el sistema bancario actual respuesta a nuestras demandas como ahorradores, consumidores, inversores...? ¿Sabemos dónde, por qué y desde qué criterios invierten las instituciones financieras el dinero de nuestras cuentas de ahorro?*

Askotan kontsumitzaile moduan ditugun kezkek ez dute erantzunik topatzen eta egoera horren aurrean irtenbide batzuk planteatzeko asmoz sortzen da FIARE (Inbertsio eta Aurrezki Erantzule Fundazioa/Fundación Inversión Ahorro Responsable).

*FIARE surge con el fin de buscar modelos y fórmulas de banca alternativa al servicio de personas y organizaciones interesadas en promover una economía diferente, más responsable socialmente. Nuestro objetivo no es otro que teniendo como referencia experiencias exitosas que se han llevado adelante en otros lugares, y con los agentes que tengan interés, crear una fundación al servicio de una nueva filosofía económica que tenga como ejes fundamentales la transparencia y la preocupación por el desarrollo social y en esta dirección han ido los pasos dados hasta ahora.*

## ETA FIARE SORTZEN DA 2002 URTEKO BUKAERAN

2001an EEA gizarte ekonomian lan egiten zuten erakunde batzuen partaide bildu ziren eta Europa mailan "banca ética" deitzen dena aztertuz hausnarketa bat egiten hasi ziren. Hausnarketa hasi aurretik beste ikerketa batzuk ikusita hiru ideia azpimarratu zituzten modu batean hasteko:

- Gizartean gero eta gehiago entzuten da diruaren erabilpenari dagokionez dohaitza ezezik aurrezteko lekua eta modua ere begiratu behar dela, *¿dónde, cómo y por qué están nuestros ahorros? ¿Sabemos de nuestra condición de agentes socio-económicos?*
- *Es necesaria la intermediación entre las organizaciones del Tercer Sector y los inversores que buscan vías diferentes a las convencionales para invertir su dinero con criterios socialmente responsables.* Momentu honetan bere diruari erabilpen etiko bat eman nahi dioten pertsonak eta haien proiektuak aurrera eramateko finantziario biderik aurkitzen ez dituzten Gizarte Ekonomiko erakundeak harremanetan jartzearen beharra dago.
- Aurrezte batzuen ustean merkatuan dauden "fondos éticos" edota "fondos solidarios" ez dira nahikoak eta ez dituzte bere beharizanak betetzen. *Para algunos ahorradores lo existente en el mercado no cubre sus expectativas.*

Gogoeta prozesuaren ondorioz 2002ko azaroan FIARE Fundazioa sortzen da. 2002ko azarotik 2003ko otsailera arte 51 erakunde sartzen dira fundatzaile gisa. Momentu honetan, hau da 2003ko irailean FIARE Fundazioa 52 erakundek osatzen dute. Fundazio hau diru irabaztearen borondate gabekoa da eta botere publiko eta enpresa pribatuetatik kanpo sortzen da. Beraren proiektuak, profesionaltasunez eta gizarte zibilari zabaldua eraman nahi ditu, bai gizarte ekonomiarri bai etika produktuen eskaerari erantzuna emanez. *Al servicio de las necesidades financieras de la economía social respondiendo a la demanda creciente, tanto personal como institucional, de ahorrar e invertir según criterios éticamente exigentes, reinvirtiéndose cualquier beneficio que pueda generarse no se pondrá al servicio de fines particulares, sino que revertirá a la sociedad mediante el apoyo a nuevas iniciativas solidarias.*



## GURE HELBURUAK

Orain arte aipatutakoarekin FIARE zergatik sortu zen ideia jaso ahal izan duzue baina zeintzuk dira FIAREren helburuak? Zer egin nahi dogu FIAREko partaideek? Gure asmoak asko izan arren oraingo honetan hiru helburu nagusietan laburbilduko ditugu gure sorreraren helburuak:

- **GIZARTE INTERESA PIZTEA BAI AURREZKI BAI ERANTZULE INBERTZIOETAN.**
- **FINANTZA BALIABIDE ALTERNATIBOAK SORTZEA.**
- **GURE HELBURUEKIN BAT DATOZEN PERTSONA ETA ERAKUNDEEKIN LAN EGITEA.**

## GURE LAN EGITEKO MODUA

- Hirugarren Sektorean lan egiten dituzten erakundeek bultzatutako gizarte proiektuak finantzatzeko instrumentu berriak sortu nahi ditugu. Instrumentu berri hauen helburua bai erakundeei bai euren partaideei mailegu abantailatuak eskeintzeko baliabideak sortzea izanda ez datoz guztiz bat banka tradizionalak eskeintzen duenarekin = **FINANTZAK EGITEKO BESTE MODU BAT.**
- Partaide guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten erakundearen irizpideak publikoak eta ezagunak dira = **TRANSPARENTZIA.**
- Gure lanaren oinarria gurekin edota inguruan lan egiten dutenek modu batean edo bestean erakundeko prozesuetan parte hartzea da = **INTERESATU GUZTIEN PARTE HARTZEA.**
- Botere publiko eta enpresa pribatuetatik kanpo sortu gara eta lana aurrera eramaterakoan gure autonomia mantenduko dugu = **AUTONOMIA.**
- Diruaren interes ekonomikoari begiratu ezik, erabilpen sozialari begiratzen diogu. = **DIRUAREN INTERES SOZIALA.**
- Hirugarren Sektorean lan egiten duten erakundeekin lan egin nahi dugu baina beste erakunde batzuk gure proiektuan interesatuak egon daitekeela ahaztu barik = **HURBILTASUNA.**
- Proiektuak aurrera eraman beti ingurugiroa kontuan hartuz = **INGURUGIROAREKIKO KONPROMISUA.**
- Diruaren errentagarritasunari bakarrik begiratzen ez dioten inbertitzaileei aukerak eskeini nahi dizkiegu, gure lehenetasunen artean gizartean aurrera ateratzeko arazo gehien dauzkaten pertsonak kontuan hartuz = **ELKARTASUNA PIZTUZ.**
- **FINANTZA BALIABIDE ALTERNATIBOAK SORTZEA.**
- **GIZARTE INTERESA PIZTEA BAI AURREZKI BAI ERANTZULE INBERTZIOETAN.**
- **GURE HELBURUEKIN BAT DATOZEN PERTSONA ETA ERAKUNDEEKIN LAN EGITEA.**
- **GUTXIETSIEI BEGIRA.**

## EZ GARA BAKARRAK

Lehen aipatutako helburuekin bai Europa mailan bai gure inguruan lan egiten duten erakundeekin kontaktuan jarri gara beste esperientzia batzuk ezagutzeko. Erakunde honek lehenengo munduan jasotzen du inbertitzaileen dirua eta herri txiroetan egiten diren proiektuetan inbertitzen du. Bestaldekik Utrechtan Europa mailan INAISEK (Europa maila batzen dituen erakunde elkarte) antolatutako jardunaldietan parte hartu dugu eta gure arloan mugitzen diren erakunde desberdinak ezagutu ditugu.

Informazio gehiago nahi baduzu edota zalantza bat sortu bazaizu, gurekin harremanetan jarri ahal zara helbide honetan: [info@fiare.org](mailto:info@fiare.org)

FIARE Fundazioa